



BEASAINDIK

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016


ELKAR ZAINDU ETA ELKARTUKO GAITUEN BEASAIN BERRIA

El nuevo Barrendain y el diagnóstico sobre la soledad no deseada marcan la hoja de ruta para mejorar nuestro bienestar



Barrendain se transforma en un nuevo espacio para la ciudadanía

—
04



Senpere kaleko horma-irudia handitzen ari da Xabier Anuntzibairen esku-hartze berriarekin

—
06



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Pertsonen arteko zubiak eraikitzen

Herri baten ongizatea ez da neur-tzen soilik haren kaleen zabalera-gatik edo azpiegituren sendota-sunagatik; gure bizi-kalitatearen benetako neurgailua pertsonen arteko harremanen kalitatea da. Azken asteetan, beasaindarrei zu-zenean eragiten dieten bi mugarri garrantzitsu ezagutu ditugu, herri gisa nola hazi nahi dugun erakus-ten dutenak.

Alde batetik, nahi ez den bakarda-deari eta osasun mentalari buruz-ko diagnostiko komunitarioa jaso dugu. Emaitzek argazki zintzo bat erakutsi digute: isileko errealitate horrek gure inguruko jende askori eragiten dio. Baina, kezkatik ha-rago, datu hauek ekintzarako deia dira. Gure erantzuna komunitatea indartzea izango da, elkarri babesa emango dion herri-estrategia par-te-hartzaile baten bidez.

Bide horretan, pozgarria da Ba-rrendain plaza berria herritarren

esku ikustea. Gune enblematiko hau ez da hirigintza-obra huts bat; nahi ez den bakardadeari aurre egiteko berariaz diseinatutako Europako espazio aitzindaria da, Kalelagun ekimenari eta Adinberri-ren babesari esker. Lehen autoek eta keak hartzen zutena, gaur egun belaunaldi arteko topaleku bilakatu da, egurrezko jolasguneekin, berdeguneekin eta elkarbizi-tzarako altzariekin.

Beasaindarrek diseinatutako plaza bat da, pertsonak elkartzeko pentsatua.

Gure erronkarik handiena etorki-zunera begira espazio hauek biziz betetzea da, inor atzean utzi gabe. Eskerrik asko prozesu hauetan parte hartu duzuen herritar, el-karte eta aditu guztiei. Elkarrekin, Beasain atseginago, gizatiarrago eta solidarioago bat eraikitzen jarraituko dugu.

Un pueblo que une a las personas

El bienestar de Beasain se mide por la calidad de sus relaciones. Recientemente hemos alcanzado dos hitos que definen nuestro futuro: el diagnóstico sobre la soledad no deseada y la salud mental, y la reapertura de Barrendain plaza.

El estudio nos muestra una realidad que requiere una respuesta comunitaria y participativa. Por ello, Barrendain no es solo una obra urbanística, sino un espacio pionero en Europa diseñado junto

a la ciudadanía y el proyecto Kalelagun de Adinberri para combatir el aislamiento social, transformando el antiguo tráfico en un punto de encuentro verde, accesible e intergeneracional.

Nuestro reto es llenar estos espacios de vida y apoyo mutuo. Gracias a todos/as los/as que colaboran para hacer de Beasain un municipio más humano, cohesionado y solidario.

Alianza contra la soledad no deseada

El diagnóstico de salud mental realizado en el municipio posibilitará elaborar un plan de acción

El Ayuntamiento de Beasain y Dar-Dar presentaron el 1 de julio en el consistorio el diagnóstico sobre salud mental y soledad no deseada con el fin de diseñar estrategias de futuro que lo mitiguen.

El 77,2% de vecinos vincula soledad y salud mental. La alcaldesa, Leire Artola, destacó que la prioridad son las personas y se abrirá un proceso participativo para diseñar un plan de acción.

En el diagnóstico participaron 429 beasaindarras, mostrando la necesidad de reforzar el apoyo comunitario y superar el estigma social, que afecta a jóvenes y mayores.

En otoño habrá talleres escolares y mesas ciudadanas para definir el plan de acción comunitario.



Komunitatearen indarra, nahi ez den bakardadeari aurre egiteko gakoa

Udalak eta Dar-Dar kooperatibak osasun mentalari eta isolamenduari buruzko azterlana aurkeztu dute, ekintza-plan bat diseinatzeko helburuarekin

Beasaingo Udalak eta Dar-Dar gizarte ekimenezko kooperatibak nahi ez den bakardadeari eta osasun mentalari buruzko diagnostiko komunitarioaren emaitzak aurkeztu zituzten uztailaren 1ean udaletxean, Adinberriren Hariak estrategiaren testuinguruan, fenomeno honi aurre egiteko herri-estrategia zehatzak diseinatzeko helburuarekin. Ekimen honek herritarren bizi-kalitatea hobetzea eta herri barruko laguntza-sareak sendotzea du xede nagusi.

Ikerketak errealitate argia utzi du agerian: beasaindarren % 77,2k uste du bakardadeak eragin handia duela osasun mentalean, eta % 35,5ek bakardade-maila handia duela aitortu du gaur egun. Gainera, % 90en iritziz, osasun mentaleko arazoak dituztenek ba-

kardadea bizi dute ohikotasunez. Leire Artola alkateak azpimarratu zuenez, udalaren lehentasuna pertsonen bizi-kalitatea da: "Gaur argazki zintzo bat daukagu esku artean, baina orain dator politena eta garrantzitsua: ekintza programa parte-hartzailea".

Duela ia bi urte abiatutako bide honetan herritarren, ikastetxeen eta osasun-profesionalen inplikazioa funtsezkoa izan da. Guztira, 18 eta 87 urte arteko 429 herritarrek erantzun zioten inkestari, sei hizkuntzatan. Azterketak erakutsi du familia dela sostengu nagusia, eta erronka handiena auzo-sareak indartzea dela. Bakardadeak adin guztietan eragiten du, baina nerabezaroan une sentikorra da eta estigma gaintitzea premiazkoa da.

★ Azterketak erakutsi du familia dela sostengu nagusia, eta erronka handiena komunitate- eta auzo-sareak indartzea dela.

Hurrengo ekintzak udazkenean iritsiko dira. Irailean eta urrian Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan sentsibilizazio-saioak egingo dira antzerki bidez. Horrez gain, herritarrekin lan-mahai parte-hartzaileak eratuko dira adituen gidaritzapean, jasotako ondorioei erantzuteko eta etorkizuneko ekintza-programa guztion artean diseinatzeko.

Barrendain: beasaindarren urratsek eta irribarreek biziberritutako plaza



Beasaingo bihotzean pertsonak protagonista izateko berreskuratu den espazio berria da

Urte askoan, Barrendain plazak herriko txokorik korapilatsuenetako bat osatu du. Trenbidearen eta erdigunearen arteko muga honetan trafiko handia, autobusen etengabeko joan-etorria eta oinezkoentzako oztopoak ziren nagusi. Alabaina, sei hilabeteko lan sakonen ostean, Udalak eremu hau goitik behera aldatu du: asfaltoaren hotzaren orde, komunitatearen berotasuna da nagusi orain. Barrendainek utzi dio ibilgailuak banatzeko birbilgune soil bat izateari, eta herritarrek euren neurrira egindako plaza dute gaur egun gozagai.

Erdigunea humanizatzeko premia

Beasainek aldaketa sakona izan du bere hiri-egituran azken hamarkadetan. Industriari eta garraioari estuki lotutako udalerria denez, erdigune-kaleak autoen menpe egon dira luzaroan. Barrendaineko lehengo birbilgunea egoera horren erakusgarri argia zen. Proiektu honen

muina, beraz, ez da estetika kontu hutsa izan, pertsonak erdigunean jartzeko premia historikoa baizik.

Eraldaketa honekin, oinezkoentzako ardatz nagusiari jarraitasuna eman zaio. Hemendik aurrera, beasaindarrak modu eroso, seguru eta irisgarriagoan ibili ahalko dira Bideluzetik hasi, Erauskin eta Barrendain zeharkatu, eta Igaratzako Monumentu Multzoraino. Katebegi berri honek herrian oinez zein bizikletaz ibiltzeko ohitura osasungarria sustatzen du.

Herritarren hitza ardatz

Garrantzitsua da azpimarratzea plaza hau ez dela bulego itxi batean diseinatu. Emaizaren oinarrian herritarren beharrak eta ideiak daude, parte-hartze prozesu zabal baten bidez jasoak. Beasaindarrek argi adierazi zuten espazio berdeagoak, irisgarriagoak eta umeentzat egokiagoak nahi zituztela.

Gaur egungo argazkia ikusgarria da: birbilgune zaharreko asfaltoak guztiz desagertu da oinezkoei lekua uzteko. Ingurumenarekiko konpromisoari jarraiki, argiteria guztia kontsumo baxuko LED teknologiarara egokitu da. Horrez gain, bizikletak aparkatzeko gune berriak jarri dira, garraio publikoaren eta bestelako mugikortasun-ereduen arteko lotura erraztuz.

Natura eta bizi-kalitatea

Plazara hurbiltzen denak berehala sumatuko du berrikuntza nagusietako bat: haur jolasgune berria. Material artifizialak baztertuta, jolasak egurrezko elementuekin eraiki dira, naturarekiko gertutasuna bilatuz. Gainera, lehendik zeuden zuhaitz handiak mantendu egin dira. Neurri horrek garrantzi handia du klima-aldaketaren testuinguruan, zuhaiztiak udako egun sargorienetan "bero-irla" efektua leuntzen duelako, itzala eta aire garbiagoa eskainiz.



Eguneroko bizi-kalitatean ere nabaria da hobekuntza. Garmendia Otaola kaletik geltokira doazen oinezkoek bide zuzenagoa eta seguruagoa dute orain, ibilgailuekin topo egiteko arriskurik gabe. Autobus-geltokiak ere berrantolatatu dira pilaketak saihesteko, eta norabidearen arabera banatu dira herriguneko trafikoa arintzeko.

Azken ukituak

Plaza herritarrentzat zabalik dagoen arren, datozen asteetan xehetasun batzuk finduko dira: palmeren inguruan egurrezko oholtza bat jarriko da, udal informaziorako pantaila digital berria jarriko da eta esne-makinaren ondoan mahaiak eta aulkiak egokituko dira. Udazkenean, sasoia denean, zuhaitz-landaketa berriak egingo dira eta inaugurazio instituzionala urrian ospatuko da. Barrendainek argi erakutsi du hirigintza modernoak pertsonak eta elkarbizitza dituela helburu.



Barrendain se devuelve a los peatones

Lo que históricamente fue un punto negro de tráfico, asfalto y ruido en el corazón de Beasain se ha transformado en un entorno amable para la ciudadanía. La remodelación de Barrendain plaza ya es una realidad tras culminar rigurosamente los seis meses de trabajos previstos, eliminando la antigua rotonda para dar prioridad absoluta a los peatones.

Este proyecto responde a una necesidad histórica de humanizar el centro urbano, logrando conectar de forma fluida y segura el eje peatonal que une Bideluze, Erauskin, Barrendain y el Conjunto Monumental de Igartza. El diseño final es fruto de un proceso

de participación ciudadana donde los vecinos demandaron un entorno más verde y funcional.


La sostenibilidad es el eje de la nueva plaza: se ha instalado iluminación LED, se han añadido aparcamientos para bicicletas y se ha creado un parque infantil inclusivo construido íntegramente con estructuras de madera natural. Asimismo, el mantenimiento del arbolado original mitiga el efecto de "isla de calor" durante el verano. La movilidad también mejora gracias a la reorganización de las paradas de autobús para evitar atascos. Aunque el espacio ya está operativo, la culminación definitiva se completará en otoño con la inauguración oficial.



★ *Tras seis meses de trabajos, el centro urbano gana un espacio accesible, sostenible y diseñado por los propios vecinos y vecinas*



Zientzia eta teknologia eskolaz kanpoko aisial- dira iritsiko dira



Beasaingo Udalak eta Elhuyarrek Bizilabe programa zientifiko eta teknologikoa jarriko dute martxan datorren ikasturtean, 10 eta 12 urte bitarteko herriko gazteentzat (LH 5 eta LH 6ko ikasleentzat). Tailerrak laster ateak irekiko dituen Oriamendi kaleko Gazteleku berrian egingo dira, urriaren 6tik aurrera, astearte arratsaldeetan.

Ekimen estrategiko honen xedea da gazteengan STEAM gaitasunak (zientzia, teknologia, ingeniari-tza, artea eta matematika) jolaserako aisialdiaren bidez piztea, pentsamendu kritikoa sustatzea eta, bereziki, neskak esparru hauetara hurbiltzea genero-estereotipoak gainditzeko. Parte-hartzaileek

laborategi bizi baten moduan funtzionatuko dute, kutsadura edo jasangarritasuna bezalako gizarte-erronkei aurre egiteko proiektu propioak garatuz, herriko enpresak gertutik ezagutzen dituzten bitartean.

Izena emateko epea uztailaren 17tik irailaren 15era egongo da zabalik bizilabe.elhuyar.eus web-gunean. Talde bakoitzean 15 toki egongo dira eta genero-oreka bermatuko da. Kuota arruntak 45 euroko kostua du ikasturte osorako (udalak % 90ean diruz lagundua), eta hobariak egongo dira familia ugari-entzat zein gizarte-laguntzak jasotzen dituztenentzat.

El nuevo Gazteleku acogerá el programa científico Bizilabe para jóvenes

El Ayuntamiento de Beasain y Elhuyar activarán el próximo curso el programa Bizilabe para jóvenes de 10 a 12 años en el nuevo Gazteleku de la calle Oriamendi. Los talleres comenzarán el 6 de octubre y se impartirán los martes por la tarde con el objetivo de despertar el interés por la ciencia y la tecnología (STEAM) de forma lúdica, impulsando el pensamiento crítico y la participación femenina. La inscripción estará abierta del 17 de julio al 15 de septiembre en bizilabe.elhuyar.eus con plazas limitadas a 15 alumnos por grupo y una cuota bonificada.

Senpere kaleko horma-irudia handitzen

Xabier Anuntzibai artista beasaindarra Senpere kaletik Lazkao bidean dagoen horma-irudi handiaren jarraipena margo-tzen ari da uda honetan, hiri-paisaia atseginagoa eta gizatiarragoa bihurtzeko asmoz.

Udalak bultzatutako "akupuntura urbanoaren" estrategiaren barruan kokatzen da proiektua, erabilera urriko edo degradatutako guneak arte publikoaren bidez berreskuratzeko eta kohesio soziala indartzeko. Iazko udan hasitako esku-hartze arrakastatsuari esker, hormigoi hotzak kolorea eta dinamismoa bereganatu zituen bidearen zati batean; aurten, berriz, errepidea-ren azken zatiko bi aldeak apainduko ditu egileak.

Sorkuntza berriaren ardatz nagusiak Beasainekin estuki lotutako gaiak izango dira, eta elementurik nabarmenena Murumendiko Mariren aurpegia izango da, herriko landa-auzoei eta mugikortasun jasangarriari keinu zuzenak egitearekin batera. Ekimen honekin, Udalak hormigoiaren presentzia leundu eta herritarren ongizate kolektiboa eta herri-nortasuna indartu nahi ditu eremu irisgarriago baten bidez.



Anuntzibai amplía el mural de la calle Senpere con motivos locales

El Ayuntamiento de Beasain y Elhuyar activarán el El artista Xabier Anuntzibai continúa este verano pintando la prolongación del mural situado en la ruta hacia Lazkao para humanizar el entorno urbano mediante la "akupuntura urbana". Los trabajos se realizarán en dos fases entre julio y agosto a ambos lados de la carretera, sustituyendo el hormigón gris por color y dinamismo. La nueva obra reflejará la identidad de Beasain a través del rostro de la dama Mari de Murumendi, los barrios rurales y la movilidad sostenible, mejorando el bienestar colectivo.

Hiri-logistika jasangarriaren erronkak aztertuko dituzte adituek Igartzako jauregian



Beasaingo Udalak eta Eus-kal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Uda Ikastaroak Fundazioak "Hiri-Logistikaren Transformazioa: Teknologia eta Eredu Arrakastatsusak" izenburuko jardunaldia antolatu dute irailaren 10erako Igartzako jauregian.

Elkarlanean antolatutako ikastaro honek goi-mailako ordezkari

publikoak, ikertzaileak eta adituak bilduko ditu Beasainen. Helburu nagusia kontsumo elektronikoaren hazkunde gogorrek (2008ko % 9,6tik 2022ko % 25,3ra igaro dena) hiri-ingurunean eta errepide bidezko garraioan eragiten dituen erronkak aztertzea da. Ikastaroak takila adimentsuak bezalako konponbide teknologikoak eta Madril edo Bartzelonako eredu deskarbonizatu

arrakastatsusak erakutsiko ditu, toki-ko merkataritzak online plataforma handiekin etxetik etxeko banaketan parez pare lehiatu dezan.

Los Cursos de Verano de la EHU analizarán la logística urbana en Igartza

El Palacio de Igartza acogerá el 10 de septiembre el curso de verano de la EHU "Transformación de la logística urbana", organizado por sexto año junto al Ayuntamiento. El encuentro reunirá a expertos para debatir sobre los retos medioambientales y de movilidad urbana derivados del auge del comercio electrónico, que pasó del 9,6% en 2008 al 25,3% en 2022. Se expondrán soluciones tecnológicas de "última milla" y casos de éxito para que el comercio local compita con las grandes plataformas online.



URBIETA

ARTE PLASTIKOEN ZENTROA

2026/2027 ikasturtea

Animatu
zaitez!

Balleta

Marrazketa
eta pintura

Zeramika
eta esmaltea

Argazki tailerra

Antzerki tailerra

Innatizaleak



EGITARAU
PROGRAMA



Beasaingo Udala